



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURREI TXERTOAK JARTZEKO EGUTEGI BERRIA (2013)

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak haurren txertaketa-egutegian 2013rako aldaketa hauek egitea onartu du:

1. **BCG txertoaren txertaketa unibertsalik ez egitea, eta, horren ordeaz, arrisku gehien duten herritar-taldeei jartzea txertoa.**

Gaixotasuna azken urteetan Euskadin pixkanaka gutxitzen joan delako hartu da erabaki hori. Horretaz gain, Euskadin ondo funtzionatzen duen gaixotasuna kontrolatzeko programa urte honetan bertan ebaluatu eta birdefinitu da. Ildo horretatik, aipatzekoa da EAE zela txerto hori jartzen jarraitzen zuen autonomia erkidego bakarra, eta Europar Batasuneko herrialde gehienek ere, gaur egun, ez dutela sartuta haurren txertaketa-egutegian. Horrenbestez, txerto horren egoera bateratu beharra dago beste autonomia erkidego batzuetan eta Europan dagoen errealitatearekin.

Horregatik, Osasun eta Kontsumo Sailak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera beste txertaketa-estrategia bati ekingo dio, eta arrisku-taldeetakoak soilik immunizatuko ditu BCG txertoarekin; horretarako, definitu egingo ditu zein diren txertoa jarriko zaien lehentasunezko talde horiek, bai eta zer estrategia garatuko duen ere.

2. **Pneumokokoaren kontrako txerto konjugatua sartzea EAEko haurren txerto-egutegian.**

Txerto antipneumokoziko konjugatu berriek, zeinak 2009tik baimenduta dauden, eta bereziki, 13 balentea txerto berriak (PnC13), *S. pneumoniae*-ren mota desberdinei dagozkien polisakaridoak ditu (1, 3, 4, 5, 6A, 6B, 7F, 9V, 14, 18C, 19A, 19F eta 23F). Polisakarido horiek Europan bost urtetik beherakoetan pneumokokoagatiko gaixotasun inbaditzaileak sortzen dituzten pneumokoko-serotipoen % 70 inguru

estaliko lukete. Gure inguruari buruz dugun informazioaren arabera, EAEn ere aplika daitezke datu horiek; izan ere, kalkulatzan da 5 urtetik beherakoetan izaten diren pneumokoko-anduien % 63,3, gutxienez, PnC13 txerto berriak estaliko lituzkeela; bost urte eta gehiagokoetan estaldura % 67,9koa izango litzateke, eta % 67,3koa gainerako herritarrengan. Gainera, txerto oso segurua eta eraginkorra da.

Gaur egun, 45 herrialdek dute merkatuan dauden txerto antipneumokoziko konjugatuetakoren bat haurren txerto-egutegian sartuta. Europan, 32 herrialdetatik 22k dute gomendatuta txerto antipneumokoziko konjugatua jartzea haurren txerto-egutegiaren barnean, nahiz eta guztiek txerto-eskema berdinak ez izan. Herrialde horien artean daude Alemania, Austria, Belgika, Finlandia, Frantzia, Holanda, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Norvegia, Erresuma Batua edo Suedia.

Nahiz eta gaur egun EAEn jaioberriei txerto antipneumokoziko konjugatua jartzea sartuta ez egon Osasun eta Kontsumo Sailak gomendatzen duen txerto-egutegiaren barnean, txerto antipneumokoziko konjugatuen salmentei buruzko farmazietako kalkuluek % 60-70en artean kokatzen dute txerto horrek benetan EAEko haurren artean duen estaldura. Egoera horrek nahasmena eragiten du osasun publikoaren ikuspuntutik, eta, aldi berean, baita ekitate eza ere, gizartearen ikuspuntutik. Osasun eta Kontsumo Sailak uste du bi eragozpen horiek konpondu daitezkeela txerto antipneumokoziko konjugatua haurren txerto-egutegian sartuta, eta, aldi berean, hobeto kontrolatuko dela txertaketa eta horren eragina.

Txerto antipneumokoziko berria 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotzen diren jaioberriei jarriko zaie.

3. 13 urte dituztenean B hepatitisaren aurkako txertoa jartzearekin bukatzea.

2000. urtetik jarri izan da txerto hori, bizitzako lehen urtean B hepatitisaren aurkako txertoa jarri ez zitzaienen kohorteak osatzeko. Gaur egun, 2000. urtean jaiotako kohorte guztiei jarri zaie jada B hepatitisaren aurkako txertoa ikastetxeetan, 2011-2012 ikasturtera bitarte. Dena den, orain arte txertoa jartzeko aukerarik izan ez den neska-

mutilei jartzeko gomendioa egiten zaie, eta txertoa jartzea eskainiko zaie, nahi badute ikastetxeetan edo, bestela, osasun-zentroetan.

EAerako gomendatutako haurren txerto-egutegia. 2013. urtea.

2 hilabete	4 hilabete	6 hilabete	12 hilabete	18 hilabete	4 urte	6 urte	13 urte	16 urte
B hepatitis	B hepatitis	B hepatitis	Elgorria		Elgorria		Giza papiloma ¹	
Difteria	Difteria	Difteria	Errubeola	Difteria	Errubeola	Difteria		
Tetanosa	Tetanosa	Tetanosa	Hazizurria	Tetanosa	Hazizurria	Tetanosa		Tetanosa-difteria helduak ²
Kukutxeztul azelularra	Kukutxeztul azelularra	Kukutxeztul azelularra		Kukutxeztul azelularra		Kukutxeztul azelularra		
Poliomielitisa	Poliomielitisa	Poliomielitisa		Poliomielitisa				
Haemophilus influenzae b	Haemophilus influenzae b	Haemophilus influenzae b		Haemophilus influenzae b				
C meningokokoa	C meningokokoa		C meningokokoa					
Pneumokoko konjugatua	Pneumokoko konjugatua		Pneumokoko konjugatua					

¹ 2. dosia, hilabetera, eta 3.a, lehenengoa jarri eta 6 hilabetera.

² Gomendatzen da oroitzapeneko dosi bat jartzea, 65 urterekin.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 21ean.

OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARITZA